

Aurkezpena

Pozgarria da, dudarik gabe, kultura askotako ekarpenak dakartzan aldizkari bat jaio dela ikustea. *Mundu bat, begirada anitz/Un mundo, muchas miradas* aldizkariak UPV/EHUko Letren Fakultateko irakurleek aukeratu dituzten gaiak biltzen ditu.

1997an abiarazi zuen UPV/EHUko (orduko izenaren arabera) Filologia eta Geografi-Historia Fakultateak bere lehenengo Irakurle Programa, aurretik izandako zenbait esperientzia kontuan hartuta. Programa hartan, inguruko hizkuntzek (alemaniera eta frantsesa) eta errusierak zuten nagusitasuna, orduko beharren ondorioz.

2003. urtean Fakultateko dekanotzaren ardura hartu zuen zuzendaritza-taldeak (eta aipamen berezia behar dute taldeburua zen Joseba Lakarra Dekanoak eta Gidor Bilbao Dekanordeak) argi ikusi zuen programa hura goia jotzear zela, eta, ordura arteko lorpenak finkatu eta sendotu ondoren, programa berria abiarazteko garaia zela. Horrela II Irakurle Programa sortu zen.

Irakurle plazei esker hizkuntza eta literatura eskola arautuak (irakurlearen ama hizkuntzan) eskaini badira ere, II Programa diseinatu zenean, ikusi zen komeni litzatekeela irakurleak ez izatea bakarrik ikasketa-planei lotuak. Zentzu honetan, hemengo ikertzaileei euren jatorriko hizkuntza eta kulturetako datuak eskainiaz lankidetzan jarduteko helburua ere planteatu zen. Horrezaz gain, dagokion hitzarmeneko hizkuntza eta kultura ezagutarazteko eta irakasteko kultur jarduerak (jardunaldiak itzulpengintzaz, literaturaz, historiaz, zineaz..., dokumentuen argitalpena etab.) bultzatzeko beharra ikusi zen.

Bestalde, hemen izandako irakurleak beren herrietara itzultzean euskararen eta euskal kulturaren zabaltzaile izatea ere bilatu zen helburu gisa.

Horrekin lotuta, gure ikasleak irakurle gisa kanpora bidaltzea ere lehentasuna izan da Fakultatearentzat. Fakultateak zerbitzu bat eskaintzen die euskal erakundeei, irakurleak kanpora bidaltzeko sinaturik dituzten hitzarmenetan hautaketa-prozesua bere gain hartuta.

Hamar urte luze pasa ondoren, hauek dira gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean dauden irakurle plazak eta unibertsitatearekin hitzarmenak dituzten erakundeak:

- Frantseseko irakurlea (Commisariat Général aux Relations Internationales de la Communauté française de Belgique)
- Alemaneko irakurlea (Deutsche Eliteakademie, DEA)
- Italiarako irakurlea (Kulturaren Institutu Italiarra eta Napoliko Unibertsitatea)
- Grezierako irakurlea (Hezkuntzako Estatu Idazkaritza, Greziako Gobernu)
- Poloniarako irakurlea (Postdamgo Unibertsitatea; Bizkaiko Foru Aldundia)
- Errusiarako irakurlea (Moskuko Unibertsitatea)
- Turkierako irakurlea (Bizkaiko Foru Aldundia)
- Galizierako irakurlea (Xunta de Galicia)
- Katalaneko irakurlea (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa)
- Irlandarreko irakurlea (Irlandako Unibertsitate Nazionala, Maynooth)
- Arabiarreko irakurlea (Kairoko Unibertsitatea)
- Japoniarako irakurlea (Kyotoko Unibertsitatea)

Gaur egun baieztatu dezakegu irakurle plazek mesede egiten diotela Letren Fakultateko ikasle guztien prestakuntzari. Irakurle programari esker, ikasleek hizkuntza maila ona izatea lortzen dute; hortaz, aukera dute ikasi duten hizkuntzan testuak irakurtzeko eta ahozko komunikazioa edukitzeko. Bi emaitza horiek ezinbestekoak dira mugikortasun programei etekina ateratzeko eta gure profesionalak osoki hezteko.

Halaber, irakurleek antolatzen dituzten jardueretan Euskal Herriko Unibertsitateko kide guztiek parte har dezakete. Ezin dugu ahaztu gaur egun munduan dauden migrazio mugimenduen ondorioz gure gizartean kultura anitz daudela. Inolako zalantzarik gabe, kultura ezberdinen arteko elkarbizitza biztanleen arteko komunikazioan oinarritzen da.

Aldizkari honen sorrera Irakurle Programan beste urrats bat ematea da. Letren Fakultatea ez da soilik ezagutza igortzeko gunea. Bere izaeraz, Ikastegi hau ezagutza-sortzailea eta gizartearekin konprometitu ere bada. Irakurleek, Ikastegi honetako kide diren heinean, hemen aurkezten diren lanak direla medio, ezagutza sortzeko konpromisoa hartu dute. Horrela, lan

hauek orain edo etorkizunean hizkuntza hauetan interesaturik daudenen-tzat prestatu dira eta horien esku jarri dira.

Nahiko nuke *Mundu bat, begirada anitz/Un mundo, muchas miradas* aldizkariak urte askotan komunikazio-zubi berriak sortzea eta gure artean hizkuntza eta kultura hauen hedatze-plataforma eskaintzea.